



IPUIN TAILER DIGITALA



e-ikasi

Ipuinak irakurri eta idatziko ditugu
Literatura ikasiko dugu
Komunitate birtual batean ariko gara
Tutorearekin eta ikaskideekin elkarreraginez ikasiko dugu
Teknologia berriak baliatuko ditugu

Aukerako irakasgaia
D.B.H. LEHENENGO ZIKLOA
70 eskola-ordu
2006-2007 ikasturtea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Hezkuntza Berritzateko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección de Innovación Educativa

hd gunea

Izenburua: **IPUIN TAILER DIGITALA**

Iraupena: 70 eskola-ordu.

Ikasleak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 1. Zikloa

Arloa: Euskal Hizkuntza eta Literatura.

Irakasleak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Euskal Filologian lizentziatuak.

Teletutorea.

(EHAA, 1996-9-6: "2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du".)

Baliabideak: e-Ikasi Teleprestakuntza Plataforma.

Eduki digitalak.

Eukeni Urgoiti,

Hizkuntza arloko e-learning eduki-garatzaillea.

ZERGATIA

Irakasgai hau, **Tales Workshop**-ekin hasitakoaren ildotik, DBHko 1. zikloko aukerako irakasgai gisa eskaintzeko garatu da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zabaldu nahi du prestakuntza eskaintza. Horretarako, zentroek dituzten mugak gainditu eta aukera berberak eman nahi dizkie ikasle guztiei, hautatu duten gaia landu dezaten.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburu orokorrak betetzen lagundu nahi du irakasgai honek, beti ere ikuspegi praktikoaz. Ikaslearen hizkuntza-gaitasuna areagotzeko helburuaz planteatzen da hizkuntzaren ikaskuntza: testu idatziak eta narrazioak aztertu, ikaslearen ulermen eta adierazpen gaitasunak garatzeko. Era berean, hobetu nahi da ikasleek duten ezagutza hizkuntzaren funtzionamenduaz, eta, horretarako, beraien testuak jorratuko dituzte, teleprestakuntzako plataformak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz, eta irakaskuntza norberari egokituz.

Bestalde, Oinarrizko Curriculum Diseinua, CEIk argitaratutako Ikastetxearen Curriculum Proiektua, Ipuin Tailerra eta Taller de cuentos arloaren curriculum (EHAA, 1996-9-6ko ERABAKIA) izan ditugu bide-erakusle.

Azkenik, irakasgaiaren diseinuari dagokionez, kontuan izan dugu ipuinak, alde batetik, bere ezaugarriei esker (laburtasuna, informatzeko gaitasuna, irudizko hizkuntzaren erabilera, elkarrizketak...), ahalbidetu egiten duela hizkuntzaren erabilera eraginkorra, eta, bestetik, maiz erabiltzen ditugula narrazio testuak egunean zehar, eremu guztietan, komunikazio baliabide gisa. Arrazoi hau, euskararen kasuan, funtsezkoa dela deritzogu, ikasleen adierazpen gaitasun eskasa ikusita: ISEI-IVEIk egindako ikerketa (2004), B2 Euskara Mailaren Ebaluazioa DBHko 4. maila (ikus: <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/B2CAST.pdf>) (<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/euskarab2-1.pdf>).

Laburbilduz, ikasleen hizkuntza-gaitasuna garatu nahi da, funtsezko bi alderdiok aintzat hartuta:

- Ulermen eta adierazpen gaitasunaren garapena.
- Hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko ezagutzaren hobekuntza.

CURRICULUMA

IPUIN TAILERRA

HELBURUAK

1. Sormenaren eta irudimenaren laguntzarekin ipuinak egitea, genero honi dagozkion egiturazko alderdiak eta literatur teknikak kontuan izanik, eta sorkuntza prozesuaren fase desberdinei jarraituz.
2. Ipuinak idazteko ekintza pentsamenduaren heldutasuna eta komunikazioa lortzeko ezinbesteko aukera dela konturatzea eta hori baloratzea, bai eta autoestimazioa garatzeko eta nork berak sortzeko duen ahalmenean konfiantza izateko ere.
3. Edozein sorkuntza-lanek berez barnea heltzeko eragiten duen prozesuaren bidez, euskal errealitateari sakonago eta norberaren ikuspegia gehiago landuz begiratzen ikastea.
4. Lan-taldean aktiboki parte hartzea, nork bere ideiak eta sentimenduak jendaurrean adierazteko eta besteen adierazpenak onartzeko izaten diren zailtasunak gaindituz.
5. Nork bere sorkuntzak, burututako jarduerak eta lortutako ikaskuntzak kritikoki ebaluatzea, beti aurrera doan eta garatzen ari den literatur genero unibertsalaren erakusgarri gisa aztertu diren ereduak baloratuz.
6. Koherentziaz eta zehaztasunez esprestatzea, ipuinak sortzen diren helburu desberdinen eta komunikazio-egoeren arabera.
7. Hiri-kulturak eta, euskararen kasuan, hizkuntza menperatzaile baten hurbiltasunak eraginda hizkuntza batek galdu ohi duen terminologi eta espresio-aberastasuna berreskuratzea.

IPUIN TAILER DIGITALA

HELBURUAK

1. Sormenaren eta irudimenaren laguntzarekin ipuinak egitea, genero honi dagozkion egiturazko alderdiak eta literatur teknikak kontuan izanik, eta sorkuntza prozesuaren fase desberdinei jarraituz.
2. Ipuinak idazteko ekintza pentsamenduaren heldutasuna eta komunikazioa lortzeko ezinbesteko aukera dela konturatzea eta hori baloratzea, bai eta autoestimazioa garatzeko eta nork berak sortzeko duen ahalmenean konfiantza izateko ere.
3. Lan-taldean aktiboki parte hartzea, nork bere ideiak eta sentimenduak jendaurrean adierazteko eta besteen adierazpenak onartzeko izaten diren zailtasunak gaindituz.
4. Nork bere sorkuntzak, burututako jarduerak eta lortutako ikaskuntzak kritikoki ebaluatzea.
5. Aztertutako testu literarioak bereganatzea, beti aurrera doan eta garatzen ari den literatur genero unibertsalaren erakusgarri gisa.
6. Testuak era autonomo eta ulerkorrean irakurtzea, testuotatik informazio zehatzak eta orokorrak atereaz.
7. Koherentziaz eta zehaztasunez esprestatzea, ipuinak sortzen diren helburu desberdinen eta komunikazio-egoeren arabera.
8. Ikasleen espresio-aberastasuna eta hiztegia zabaltzea.
9. Helburu desberdinekin irakurtzea, testuen garrantzia informazioaren, gozamenaren eta aisialdiaren iturri gisa baloratuz.

IPUIN TAILERRA

EDUKIAK

A) Kontzeptuzko edukiak:

1. Ipuina: ezaugarriak eta definizioa. Jatorria. Ahozko ipuinetik idatzizko ipuinerara.
2. Ipuinaren gizarte eta kultur unibertsaltasuna.
3. Euskal ipuin tradizionalak: irudi prototipikoen azterketa, hedadura kritikoa eta historikoa, aberastasun dialektikoa eta antropologikoa.
4. Ipuin tradizioaletik ipuin modernora.
5. Ipuinaren tipologia, egilearen, gaiaren eta hartzailearen arabera: didaktikoa, fantasiakoa/leiendakoa, beldurrezkoa, zientzia-fikziozkoa, psikologikoa, errealista, misteriozkoa, alegiak, etab.
6. Ipuinaren egitura:
 - a. Izenburua: gaiarekin duen lotura.
 - b. Narratzailea eta ikuspegia. Narratzaile protagonista. Lekuko narratzailea. Narratzaile guzti-jakituna, etab.
 - c. Diskurtsoaren literatur formak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa, bakarriketa, etab.
 - d. Gaia eta argudioa. Gai baten argudioaren bilakaera.
 - e. Espazioa eta denbora. Lekuak, eszenatokiak eta paisaiak. Denboraren igaroaldia: abiadura eta erritmoa.
 - f. Pertsonaiak. Motak eta karakterizazioak: protagonistak, antagonistak, bigarren-mailakoak, pertsonaiafardelak... Adierazten dituzten baloreak.
 - g. Amaiera. Narrazio baterako amaiera desberdinak.
 - h. Ipuinaren mezua.
7. Bai gaztelaniaren eta bai euskararen berriazko baliabideak.

IPUIN TAILER DIGITALA

EDUKIAK

A) Kontzeptuzko edukiak:

1. Ipuina: ezaugarriak eta definizioa. Jatorria. Ahozko ipuinetik idatzizko ipuinerara.
2. Ipuinaren gizarte eta kultur unibertsaltasuna.
3. Ipuin tradizionala: arketipoak.
4. Ipuin tradizioaletik ipuin modernora.
5. Ipuinaren tipologia, egilearen, gaiaren eta hartzailearen arabera: didaktikoa, fantasiakoa/leiendakoa, beldurrezkoa, zientzia-fikziozkoa, psikologikoa, errealista, misteriozkoa, alegiak, etab.
6. Ipuinaren egitura:
 - a. Izenburua: gaiarekin duen lotura.
 - b. Narratzailea eta ikuspegia. Narratzaile protagonista. Lekuko narratzailea. Narratzaile guzti-jakituna, etab.
 - c. Diskurtsoaren literatur formak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa, bakarriketa, etab.
 - d. Gaia eta argudioa. Gai baten argudioaren bilakaera.
 - e. Espazioa eta denbora. Lekuak, eszenatokiak eta paisaiak. Denboraren igaroaldia: abiadura eta erritmoa.
 - f. Pertsonaiak. Motak eta karakterizazioak: protagonistak, antagonistak, bigarren-mailakoak, pertsonaiafardelak... Adierazten dituzten baloreak.
 - g. Amaiera. Narrazio baterako amaiera desberdinak.
 - h. Ipuinaren mezua.
7. Berriazko adierazpen baliabideak.

IPUIN TAILERRA

EDUKIAK

B) Prozedurazko edukiak

1. Ipuin desberdinen aukera anitz eta adierazgarri bat ozen irakurtzea, espresioa eta ulermena kontuan izanik, intonazioan eta ebakeran arreta jarriz eta puntuazio-ikurrak errespetatuz.
2. Ikasgelan irakurritako ipuinen egitura, edukia, gaia eta mezua antzematea. Ipuinaren funtsezko testu-unitateak aztertu eta erabiltzea.
3. Komunikazioan esku hartzen duten elementuak aztertu eta eraldatzea (igorlea, hartzailea, kodea, testuingurua, etab.)
4. Ipuinaren oinarriko egiturak eraldatzea, ondorengo prozedura hauek erabiliz: ordezkatzeta, zabalkuntza, murrizketa, ezabaketa, egitura-ordenaren aldaketa, pertsonaien eta hizkuntzaren aldaketa, eta aldaketa horiek ipuinaren esanahian duten eraginak aztertzea.
5. Ipuinaren barruan, narrazioan eta deskribapenean agertzen den ordena aztertu eta ulertzea.
6. Kontaketa baten zati bakoitza antzematea, narrazioak aurrera jarraitzea eragiten duten elementuak identifikatuz: denboraren igaroaldia, leku-aldaketak, gertakizunen segida, etab.
7. Pertsonaien ezaugarriak adieraztea, haien hizkeran eta jarreran oinarrituz. Pertsonaien elkarriketak eta solasaldiak antzematea, bai eta pertsonaiaren esku-hartzea eta doinua adierazten duten puntuazio-ikurrak ere.
8. Ahozko eta idatzizko ipuinak sortzea, plangintza egoki baten ondoren, eta koherentzia, kohesioa, egokitasun gramatikala, eta komunikazio-egoera zehatza kontuan izanik.
9. Jatorri desberdinetako ipuinak biltzea, iturburu desberdinetara joz eta prozedura desberdinak erabiliz.

IPUIN TAILER DIGITALA

EDUKIAK

B) Prozedurazko edukiak:

1. Ipuin desberdinen aukera anitz eta adierazgarri bat irakurtzea, ulermena kontuan izanik.
2. Ikasgelan irakurritako ipuinen egitura, edukia, gaia eta mezua antzematea. Ipuinaren funtsezko testu-unitateak aztertu eta erabiltzea.
3. Komunikazioan esku hartzen duten elementuak aztertu eta eraldatzea (igorlea, hartzailea, kodea, testuingurua, etab.).
4. Ipuinaren oinarriko egiturak eraldatzea, ondorengo prozedura hauek erabiliz: ordezkatzeta, zabalkuntza, murrizketa, ezabaketa, egitura-ordenaren aldaketa, pertsonaien eta hizkuntzaren aldaketa, eta aldaketa horiek ipuinaren esanahian duten eraginak aztertzea.
5. Ipuinaren barruan, narrazioan eta deskribapenean agertzen den ordena aztertu eta ulertzea.
6. Kontaketa baten zati bakoitza antzematea, narrazioak aurrera jarraitzea eragiten duten elementuak identifikatuz: denboraren igaroaldia, leku-aldaketak, gertakizunen segida, etab.
7. Pertsonaien ezaugarriak adieraztea, haien hizkeran eta jarreran oinarrituz. Pertsonaien elkarriketak eta solasaldiak antzematea, bai eta pertsonaiaren esku-hartzea eta doinua adierazten duten puntuazio-ikurrak ere.
8. Ahozko eta idatzizko ipuinak sortzea, plangintza egoki baten ondoren, eta koherentzia, kohesioa, egokitasun gramatikala, eta komunikazio-egoera zehatza kontuan izanik.
9. Jatorri desberdinetako ipuinak biltzea, iturburu desberdinetara joz eta prozedura desberdinak erabiliz.
10. Kontsulta materialak erabiltzea.

IPUIN TAILERRA

EDUKIAK

C) Jarrerazko edukiak

1. Ikaskuntzan zehar egindako lana baloratu eta errespetatzea, eta ikasgelan irakurritako eta aztertutako ipuinak eta nork berak edo taldean sortutakoak baloratzea.
2. Ikasleak lan intelektualerako ohiturak bereganatzeko eta taxuz eta zehaztasunez espresatzeko interesa erakustea.
3. Hizkuntza errespetuz erabiltzearen aldeko jarrera erakustea, bereziki estereotipoak, esamoldeak, adierazpen diskriminatzaileak, etab. saihestuz.
4. Ipuin tradizionalaren aurrean jakin-mina erakustea eta baloratzea, Euskal Herriko izate historikora hurbiltzeko eta hizkuntza aberasteko tresna gisa.
5. Literatur sorkuntza baloratzea, Euskal Herriko gizartearen errealitatea ulertzeko eta adierazteko tresna bikaina baita.
6. Literatur testuak irakurtzeko eta testuak bakarka edo taldean sortzeko zaletasuna izatea.
7. Autoestimazioa garatzea eskolako lanak egitean eta sorkuntzazko testuak idaztean.
8. Taldea ideia pertsonalak adierazi eta errespetatzen diren eremu gisa hartzea.

IPUIN TAILER DIGITALA

EDUKIAK

C) Jarrerazko edukiak

1. Ikaskuntzan zehar egindako lana baloratu eta errespetatzea, eta ikasgelan irakurritako eta aztertutako ipuinak eta nork berak edo taldean sortutakoak baloratzea.
2. Ikasleak lan intelektualerako ohiturak bereganatzeko eta taxuz eta zehaztasunez espresatzeko interesa erakustea.
3. Hizkuntza errespetuz erabiltzearen aldeko jarrera erakustea, bereziki estereotipoak, esamoldeak, adierazpen diskriminatzaileak, etab. saihestuz.
4. Ipuin tradizionalaren aurrean jakin-mina erakustea eta baloratzea, izate historikora hurbiltzeko eta hizkuntza aberasteko tresna gisa.
5. Literatur sorkuntza baloratzea, Euskal Herriko gizartearen errealitatea ulertzeko eta adierazteko tresna bikaina baita.
6. Literatur testuak irakurtzeko eta testuak bakarka edo taldean sortzeko zaletasuna izatea.
7. Autoestimazioa garatzea eskolako lanak egitean eta sorkuntzazko testuak idaztean.
8. Taldea ideia pertsonalak adierazi eta errespetatzen diren eremu gisa hartzea.

IPUIN TAILERRA

EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Jatorri desberdinetako ipuinen funtsezko ezaugarriak eta helburua antzematea, edukia ahoz edo idatziz adieraziz eta egiturari dagozkion elementuak antzemanaz (argudioa, pertsonaiak, ekintza, espazioa, denbora, etab.) bai eta oinarritzko baliabide estilistikoak ere.

2. Ipuinak sorkuntza-asmoekin egitea, testu narratiboaren lanketa-fase desberdinak kontuan hartuz, edukia egituratuz, kohesiorako prozedurak, loturarako elementuak, konplexutasun-maila desberdinetako egitura sintaktikoak, pertsonaien arabera euskalkiak, eta hika/zuka-ren tratamendua behar bezala erabiliz; baita arau ortografikoak eta testuak aurkezteko konbentzioak errespetatuz ere.

3. Taldean lan egitea eta talde-jardueretan parte hartzea, elkarlanerako eta besteak onartu eta errespetatzeko jarrera erakutsiz, eta bakarkako nahiz taldeko jardueretan erantzukizuna nork bere gain hartuz.

4. Literatur testuaren ulermen eta sorkuntza-prozesuak heldutasun pertsonalaren eta auto-estimaziorako gaitasunaren bilakaeran duen eraginari buruz gogoeta egitea, bai eta nork bere buruarekin eta besteekin komunikatzeko tresna gisa hizkuntza ezagutzeak duen garrantziari buruz ere.

IPUIN TAILER DIGITALA

EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Jatorri desberdinetako ipuinen funtsezko ezaugarriak eta helburua antzematea, edukia ahoz edo idatziz adieraziz eta egiturari dagozkion elementuak antzemanaz (argudioa, pertsonaiak, ekintza, espazioa, denbora, etab.)

2. Ipuinak sorkuntza-asmoekin egitea, testu narratiboaren lanketa-fase desberdinak kontuan hartuz:

a) edukia egituratuz.

b) kohesiorako prozedurak, loturarako elementuak, konplexutasun-maila desberdinetako egitura sintaktikoak erabiliz.

c) pertsonaien arabera, hizkuntza-erregistro ezberdinak erabiliz.

d) arau ortografikoak eta testuak aurkezteko konbentzioak errespetatuz.

3. Taldean lan egitea eta talde-jardueretan parte hartzea, elkarlanerako eta besteak onartu eta errespetatzeko jarrera erakutsiz, eta bakarkako nahiz taldeko jardueretan erantzukizuna nork bere gain hartuz.

4. Literatur testuaren ulermen eta sorkuntza-prozesuak heldutasun pertsonalaren eta auto-estimaziorako gaitasunaren bilakaeran duen eraginari buruz gogoeta egitea, bai eta nork bere buruarekin eta besteekin komunikatzeko tresna gisa hizkuntza ezagutzeak duen garrantziari buruz ere.